□ Monitoreek Europako Erreferentzia Markoaren C1 gaitasun maila egiaztatu beharko dute. (EGA edo baliokidea) Kontratua adjudikatu aurretik egiaztatu beharko du enpresak zerbitzua emango duten pertsonek badutela eskatutako hizkuntza gaitasuna. Era berean, enpresa kontratatu eta geroago zerbitzua emango duen pertsona berririk sartuko balitz, horiek ere eskatutako hizkuntza gaitasuna egiaztatu beharko dute. Hizkuntza gaitasuna egiaztatzeko honako bi bideak erabili ahal izango dira: □ Zerbitzua eman behar duten pertsonek eskatutako hizkuntza gaitasuna daukatela ziurtatzen duen agiria aurkeztea edo, □ Administrazioak erabakitako proba egitea (proba horretan lortutako agiriak ez du inolako baliorik izango esleipen honetatik kanpo). **4.-Udalarekin harremana:**Kontratu honen bidez sortzen diren ahozko zein idatzizko komunikazioak euskaraz izango dira administrazio kontratatzailearekin(kontratuak, fakturak, txostenak, bilerak, kontsultak,memoriak...). **5.-**Klausula honetako baldintzak kontratuaren funtsezko betebeharrak dira, Sektore Publikoko Kontratuen Legearen ondorioetarako. Hortaz, baldintzak betetzen ez badira, kontratua bertan behera gelditu ahal izango da, lege horren 211.f) artikuluaren arabera. **6.-**Sektore Publikoko Kontratuen Legearen 62 eta 210. artikuluen arabera, kontratuaren arduradunak ikuskatuko du ea kontratuko hizkuntza-baldintzak betetzen diren, segimendua egingo du, eta horretarako behar diren erabakiak hartuko ditu. Ikuskapena ez da bukaeran bakarrik egingo; aitzitik, jarraitua izango da. **19.2. Enpresa adjudikaziodunaren lan eskubideak eta betebeharrak** 1. Kontratuak derrigorrez bete beharko ditu lan-arloan, Gizarte Segurantzaren arloan eta laneko segurtasun eta osasunaren arloan indarrean dauden eta aplikagarri diren legezko, arauzko eta hitzarmenezko xedapenak.		□ a las personas monitoras: se le exigirá el nivel de competencia C1 del Marco Europeo de Referencia (EGA o equivalente). Previa a la adjudicación del contrato, la empresa deberá verificar que las personas encargadas de prestar el servicio poseen la competencia lingüística precisa. Asimismo, en caso de que, una vez iniciado el contrato, se incorporen nuevas personas a prestar el servicio, deberán acreditar la competencia lingüística precisa. La acreditación de la competencia lingüística podrá hacerse de alguna de las siguientes maneras: □ La presentación de documentos que acrediten que las personas que prestarán el servicio cumplen con la competencia lingüística exigida, o □ La realización de una prueba decidida por la administración. **4.-Relación con la administración:**las relaciones tanto verbales como escritas de la empresa con la administración en todos los cometidos objeto del contrato se realizarán en euskara (contratos, facturas, informes, reuniones, consultas, memorias…). **5.-**Los requisitos de esta cláusula constituyen obligaciones esenciales del contrato a los efectos de laLCSP, y su incumplimiento puede motivar la resolución del mismo, de conformidad con el artículo 211. f) de la citada ley. **6.-**De conformidad con el artículo 62 y 210 de la LCSP, la persona responsable del contrato inspeccionará el cumplimiento condiciones lingüísticas del contrato, hará seguimiento, adoptará las decisiones y dictará las instrucciones necesarias a tal fin. La inspección se realizará no solo a su finalización sino de modo continuado. **19.2. Derechos y obligaciones laborales de la empresa adjudicataria** 1. El presente contrato se halla sujeto al cumplimiento de las disposiciones legales, reglamentarais y convencionales vigentes y que resulten de aplicación en materia laboral, de Seguridad Social y de seguridad y salud en el trabajo.

Kontratua indarrean den bitartean, kontratuaren hasierako plantillan aldaketak gertatzen badira (bai erretiro, heriotza, borondatezko baja, kaleratze, aldi baterako ezintasun, ezintasun iraunkor eta abarrengatik, bai zerbitzuaren beharrengatik), baja hori bete aurretik adjudikaziodunak Udalari horren berri emango dio.		Durante la vigencia del contrato y siempre que se produzca una variación en la plantilla con que se inicia el mismo, bien sea por jubilación, defunción, baja voluntaria, despido, invalidez, etc. o cualquier otra que se produzca por necesidades del servicio la empresa adjudicataria está obligada a dar cuenta al Ayuntamiento previamente a cubrir la baja causada.
Adjudikaziodunaren ardura osoa izango da bere zerbitzuan izango dituen langileen kontratazioa eta horien prestakuntza. Zarauzko Udalak ez du inongo harreman juridikorik izango adjudikaziodunarentzat lanean diharduten langileekin, ez agiri hauen xede den kontratua indarrean den bitartean ez kontratua bukatu ondoren ere.		Será de cuenta y cargo de la empresa adjudicataria exclusivamente la contratación del personal a su servicio y su formación. El Ayuntamiento de Zarautz no tendrá relación jurídica alguna con el personal al servicio de la adjudicataria durante el plazo de vigencia del contrato objeto de este pliego ni al término del mismo.
2. Kontratuaren xede den jardueran arituko diren langileei zein hitzarmen kolektibo aplikatu zaien adierazi beharko dute lizitatzaileek, adjudikazioa lortzen badute.		2. Las personas o empresas licitadoras deberán indicar el convenio colectivo que será de aplicación a las personas trabajadoras que realicen la actividad objeto del contrato, en el caso de resultar adjudicatarios.
Halaber, behin kontratua adjudikatu eta gero langileei benetan aplikatuko zaizkien lan baldintzei buruz eskatzen zaien informazio guztia ematera behartuta egongo dira.		Asimismo, estarán obligadas a facilitar cuanta información se requiera sobre las condiciones de trabajo que, una vez adjudicado el contrato, se apliquen efectivamente a las personas trabajadoras.
3. Hitzarmen kolektiboan jasotako soldata ordaindu beharko du enpresa adjudikaziodunak kontratua gauzatzen den denbora guztian, beti ere langileari dagokion lanbide-kategoriaren arabera, eta ordaintzekoa den soldata ezin izango da, inola ere, txikiagoa izan.		3. La empresa adjudicataria deberá a lo largo de toda la ejecución del contrato, abonar el salario recogido en el convenio colectivo de aplicación según la categoría profesional que le corresponda a la persona trabajadora, sin que en ningún caso el salario a abonar pueda ser inferior a aquel
4. Klausula honetako baldintzak kontratuaren funtsezko betebeharrak dira, SPKLren ondorioetarako. Hortaz, baldintzak betetzen ez badira, kontratua bertan behera gelditu ahal izango da, lege horren 221.f) artikuluaren arabera.		4. Los requisitos de esta cláusula constituyen obligaciones esenciales del contrato a los efectos de la LCSP, y su incumplimiento puede motivar la resolución del mismo, de conformidad con el artículo 211. f) de la citada ley.
19.3. Berdintasuna. Emakumeen eta gizonen berdintasuna bermatzeko eskubide eta betebeharrak		**19.3. Igualdad. Derechos y obligaciones para garantizar la igualdad de mujeres y hombres**
1.- Enpresa adjudikaziodunak nahitaez beteko ditu honako hauek: 3/2007 Lege Organikoa, Emakumeen eta Gizonen Berdintasun Eragingarrirakoa; 4/2005 Legea, Emakumeen eta Gizonen Berdintasunerakoa; eta Emakumeen eta Gizonen Berdintasunerako Zarauzko Udal Ordenantza.		1. La empresa adjudicataria deberá cumplir los principios establecidos en la Ley Orgánica 3/2007 para la Igualdad Efectiva de Mujeres y Hombres, la Ley 4/2005 para la Igualdad de Mujeres y Hombres y la Ordenanza Municipal de Zarautz para la Igualdad de Mujeres y Hombres.
2.- Enpresa adjudikaziodunak komunikazio ez-sexista eta inklusiboa egingo du bere dokumentazioan, publizitatean, irudietan eta materialetan (Emakumeen eta Gizonen		2. La empresa adjudicataria hará un uso de la comunicación de manera no sexista e inclusiva en toda la documentación, publicidad, imagen o materiales (artículo 26 de la Ordenanza Municipal

Berdintasunerako Udal Ordenantzaren 26. artikulua).		de Zarautz para la Igualdad de Mujeres y Hombres).
3.- Beste neurri batzuk hartzeari utzi gabe eta berdintasun arloan indarrean dagoen legeriari jarraiki, kontratuaren adjudikaziodun gisa izendatutako pertsona juridikoak, bere estatus juridikoa edozein izanda ere, derrigorrez bermatu beharko du emakumeen eta gizonen arteko berdintasuna, eta arreta berezia jarriko du soldata-diskriminazioan (Emakumeen eta Gizonen Berdintasunerako Zarauzko Udal Ordenantzaren 36 artikulua eta Kontratuen Legearen 1.3 artikulua).		3. Sin perjuicio de otras medidas y en virtud de la legislación vigente en materia de igualdad, la persona jurídica designada como adjudicataria del contrato, independientemente de su estatus jurídico, deberá garantizar obligatoriamente la igualdad entre mujeres y hombres, prestando especial atención a la discriminación salarial (artículo 36 de la Ordenanza Municipal de Zarautz para la Igualdad de Mujeres y Hombres y artículo 1.3. de la LCSP).
4. Zerbitzua garatu behar duen talde lizitatzaileko pertsona guztiek emakumeekiko eta gizonekiko errespetuzko eta berdintasunezko tratua edukiko dute une oro, eta ez dute jarrera gogaikarri, iraingarri edo diskriminatzailerik hartuko sexu, ideologia, jatorri etniko, nazionalitate edo orientazio sexualagatik.		4. Todas las personas de la empresa que vayan a desarrollar el servicio, deberán mantener en todo momento una actitud respetuosa e igualitaria hacia mujeres y hombres, y no adoptarán ninguna actitud que pueda ser molesta, ofensiva o discriminatoria tanto por razón de sexo, ideología, origen étnico, nacionalidad u orientación sexual.
5.Emakumeen eta gizonen berdintasun eragingarrirako 3/2007 Lege Organikoaren eta Enplegu eta lanaren arloan emakumeen eta gizonen arteko tratu-eta aukera-berdintasuna bermatzeko presako neurrien martxoaren 1eko 6/2019 Errege Lege Dekretuaren arabera: - Enpresak 100 langile baino gehiago baldin baditu, Berdintasun Plana aurkeztu beharko du.		5. De conformidad con la Ley Orgánica 3/2007 para la igualdad efectiva de mujeres y hombres y el Real Decreto-ley 6/2019 de 1 de marzo, de medidas urgentes para garantía de la igualdad de trato y de oportunidades entre mujeres y hombres en el empleo y la ocupación: - Si la empresa tiene más de 100 personas empleadas, deberá presentar el Plan de Igualdad de la empresa.
Urriaren 13ko 901/2020 Errege Dekretuaren arabera (berdintasun-planak eta haien erregistroa arautzen dituena eta laneko hitzarmen eta akordio kolektiboen erregistro eta gordailuari buruzko maiatzaren 28ko 713/2010 Errege Dekretua aldatzen duena), berdintasun plana egin beharra dakarren pertsona-kopurua kalkulatzeko, enpresaren plantilla osoa hartuko da kontuan, edozein izanda ere haren lan-zentroak eta edozein izanda ere lan-kontratazioaren modalitatea; alegia, pertsona hauek ere kontuan hartuko dira: bai aldizkako lan-kontratu finkoak dituzten pertsonak, bai iraupen jakineko kontratuak dituzten pertsonak eta bai langileak lagatzeko kontratuak dituzten pertsonak.		De conformidad con el Real Decreto 901/2020, de 13 de octubre, por el que se regulan los planes de igualdad y su registro y se modifica el Real Decreto 713/2010, de 28 de mayo, sobre registro y depósito de convenios y acuerdos colectivos de trabajo, para el cálculo del número de personas que dan lugar a la obligación de elaborar un plan de igualdad, se tendrá en cuenta la plantilla total de la empresa, cualquiera que sea el número de centros de trabajo de aquella y cualquiera que sea la forma de contratación laboral, incluidas las personas con contratos fijos discontinuos, con contratos de duración determinada y personas con contratos de puesta a disposición.
6.- Sektore Publikoko Kontratuen Legearen 62 eta 210. artikuluen arabera, kontratuaren arduradunak ikuskatuko du ea kontratuko berdintasun-baldintzak betetzen diren, segimendua egingo du, eta horretarako behar diren erabakiak hartuko ditu. Ikuskapena ez da bukaeran bakarrik egingo; aitzitik, jarraitua izango da. Halaber, baldintza hauek betetzeko,		6.- De conformidad con el artículo 62 y 210 de la LCSP, la persona responsable del contrato inspeccionará el cumplimiento de condiciones de igualdad del contrato, hará seguimiento, adoptará las decisiones y dictará las instrucciones necesarias a tal fin. La inspección se realizará no solo a su finalización sino de modo continuado. Asimismo, para el cumplimiento de estos

adjudikaziodunak Parekidetsun Departamentuaren aholkularitza eta laguntza jaso ahal izango ditu.		requisitos, la empresa adjudicataria podrá contar con el asesoramiento y la ayuda del Departamento de Igualdad.
7. Klausula honetako baldintzak kontratuaren funtsezko betebeharrak dira, Kontratuen Legearen ondorioetarako. Hortaz, baldintzok betetzen ez badira, kontratua bukatu daiteke, lege horren 211.f) artikuluaren arabera.		7. Los requisitos de esta cláusula constituyen obligaciones esenciales del contrato a los efectos de la LCSP, y su incumplimiento puede motivar la resolución del mismo, de conformidad con el artículo 211. f) de la citada ley.
20. ENPRESA ADJUDIKAZIODUNAREN ERANTZUKIZUNA KONTRATUA BURUTZERAKOAN BESTE BATZUEI KALTEAK ERAGITEN BADIZKIE		**20. RESPONSABILIDAD DE LA EMPRESA ADJUDICATARIA POR DAÑOS DURANTE LA EJECUCIÓN DEL CONTRATO**
Enpresa adjudikaziodunak bere gain hartuko ditu kontratua betetzeak dakartzan lanen ondorioz hirugarrengoei egindako kalteak eta galerak, SPKLak 196 artikuluan xedatutakoarekin bat etorriz. Horren ondorioetarako, 150.000 euroko aseguru-poliza bat izenpetu beharko du.		La empresa adjudicataria será responsable de los daños y perjuicios que se causen como consecuencia de las operaciones que requiera la ejecución del contrato, de acuerdo con lo dispuesto en el artículo 196 de la LCSP, a cuyo efecto deberá suscribir una póliza de seguro por importe de 150.000 euros.
Estaldura horrek indarrean jarraitu beharko du kontratuak irauten duen denbora osoan eta, halakorik balego, luzapenetan.		Dicha cobertura deberá mantener su vigencia en todo el período de duración del contrato, y en su caso, en las prórrogas correspondientes.
21. KONTRATUA ALDATZEA		**21. MODIFICACIONES DEL CONTRATO**
Behin kontratua burutzen denean, interes publikoak eragindako aldaketak bakarrik sartu ahalko dira, klausula honetan ezarritako kasuetan edo SPKLaren 205. artikuluan jarritako kasuetan eta mugekin.		Una vez perfeccionado el contrato, solo se podrán introducir modificaciones por razones de interés público, en los casos previstos en esta cláusula o en los supuestos y con los límites establecidos en art. 205 de la LCSP.
Kontratuan aldaketak sartu behar direnean, proposamena idatziko dute dagokion departamentuak eta kontratuaren arduradunak, aldaketa arrazoitzen, deskribatzen eta baloratzen duten agiriekin batera. Administrazioak enpresa kontratistari entzunaldia emango dio, aldaketa onartu aurretik. Kontratazio-organoak onartu beharko ditu aldaketok; baina, aurretik, SPKLren 191 eta 207 artikuluetan aurreikusitako prozedura tramitatuko da eta dokumentu administratiboa formalizatuko da, lege bereko 153. artikuluan xedatutakoaren arabera, behin betiko bermea berregokituta, hala behar bada.		Cuando sea necesario introducir modificaciones en el contrato el departamento correspondiente junto con la persona responsable del contrato redactará la oportuna propuesta, integrada por los documentos que justifiquen, describan y valoren aquella. La aprobación de la modificación por la Administración requerirá la previa audiencia de la empresa contratista. Las modificaciones deberán ser aprobadas por el órgano de contratación previa tramitación del procedimiento previsto en el art. 191 y 207 de la LCSP y formalizarse en documento administrativo con arreglo a lo señalado en el art. 153 de la LCSP, previo reajuste de la garantía definitiva en su caso.
22. KONTRATUA BUKATZEKO ARRAZOIAK		**22. CAUSAS DE RESOLUCIÓN DEL CONTRATO**
Kontratua bukatzeko arrazoiak izango dira: SPKLren 211 artikuluan aurreikusitakoak, bai eta		Constituyen causas de resolución del contrato las establecidas en los artículos 211 de la LCSP, así

lege bereko 313 artikuluan bereziki zerbitzu-kontratuetarako jasotakoak, eta 294 artikuluko c), d) eta f) letretan aurreikusitakoak.		como las recogidas en el artículo 313 de la misma Ley para los contratos de servicios en particular.
Kontratua bukatzeko berariazko arrazoia izango da administrazioarekin kontratatzeko betekizunak bat-batean galtzea (kontratatzeko gaitasuna eta kaudimena galtzea eta kontratatzeko debekuren bat izatea), SPKLan jartzen duen moduan.		Se establece como causa expresa de resolución del contrato la pérdida sobrevenida de los requisitos para contratar con la administración (exigencias de capacidad de la empresa contratista y no estar incursa en ninguna causa de prohibición de contratar) en los términos establecidos en la LCSP
23. ADMINISTRAZIOAREN ESKUBIDEAK		**23. PRERROGATIVAS DE LA ADMINISTRACIÓN**
Administrazioari honakoak dagozkio: a) kontratua interpretatzea b) kontratuan sortzen diren zalantzak argitzea c) interes publikoko arrazoiengatik kontratua aldatzea d) kontratua amaitzea eta amaiera horren ondorioak zehaztea, SPKLan eta Herri Administrazioetako Kontratuen Legearen Erregelamendu Orokorrean ezarritako mugen barruan eta horiek zehaztutako baldintza eta ondorioak betez.		Corresponden a la Administración las prerrogativas de interpretar el contrato, resolver las dudas que ofrezca su cumplimiento, modificarlo por razones de interés público, acordar su resolución y determinar los efectos de ésta, dentro de los límites y con sujeción a los requisitos y efectos establecidos en la LCSP, así como en el Reglamento General de la Ley de Contratos de las Administraciones Públicas.
24. KONTRATUA HIRUGARRENEI LAGATZEA AZPIKONTRATAZIOA		**24. CESIÓN DEL CONTRATO A TERCEROS. SUBCONTRATACIÓN**
Zarauzko Udalak berariaz baimendu ezean, adjudikaziodunak ezingo dizkio kontratuaren eskubideak eta betebeharrak beste pertsona edo erakunderen bati laga edo eskualdatu.		La empresa adjudicataria no podrá sin previa autorización expresa del Ayuntamiento de Zarautz, ceder ni traspasar los derechos y obligaciones derivadas del contrato, a otra persona o entidad.
Halaber, aurretik Udalak espresuki baimendu ezean, adjudikaziodunak ezingo du lanen zati bat hirugarren batekin hitzartu edo azpikontratatu.		La empresa adjudicataria tampoco podrá subcontratar ni concertar con terceros la realización parcial de la prestación, salvo que el Ayuntamiento lo autorice expresamente.
25 DATU PERTSONALEN BABESA		**25 PROTECCIÓN DE DATOS DE CARÁCTER PERSONAL**
Datu pertsonalen tratamendutzat joko dira pertsona fisiko identifikatuei edo identifikagarriei buruzko datuak biltzeko, grabatzeko, gordetzeko, prestatzeko, aldatzeko, blokeatzeko eta ezabatzeko eragiketa eta prozedura teknikoak, automatizatuak izan zein ez, bai eta komunikazioetan, kontsultetan, interkonexioetan eta transferentzietan sortzen diren datu-konexioak ere.		Por tratamiento de datos de carácter personal se entenderán las operaciones y procedimientos técnicos de carácter automatizado o no, que permitan la recogida, grabación, conservación, elaboración, modificación, bloqueo y cancelación, así como las conexiones de datos que resulten de comunicaciones, consultas, interconexiones y transferencias que afecten a cualquier información concerniente a personas físicas identificadas o identificables.
Baldin, enpresa kontratistak edo azpikontratistak, kontratua dela-eta, datu pertsonalak tratatzen edo eskuratzen baditu, Sektore Publikoko Kontratuen Legeak hogeita bosgarren xedapen gehigarrian xedatutakoa eta ondorengo arauak beteko ditu:		En el caso de que el contrato conlleve tratamiento de datos de carácter personal o el acceso de la empresa contratista o subcontratista a datos de este carácter, se estará a lo dispuesto en la disposición adicional vigésima quinta de la LCSP, y a las siguientes reglas:

1. Tratamenduaren arduradunak emandako jarraibideen arabera bakarrik tratatuko ditu datuak kontratistak.		1. La persona o empresa contratista únicamente tratará los datos conforme a las instrucciones de la persona responsable del tratamiento.
2. Tratamenduaren xede diren datu pertsonalak kontratuaren helburua betetzeko bakar-bakarrik erabiliko dira; ezingo dira, beraz, beste ezertarako erabili. 3. Kontratu honen ondorioz tratatutako datu pertsonal bat bera ere ez zaie hirugarrenei jakinaraziko. Horrenbestez, kontratistak hitz ematen du datuok edo horiekin sortutako fitxategiak ez dizkiola jakinaraziko, lagako, transferituko edo komunikatuko hirugarren bati, ez ahoz ez idatziz, ez bitarteko elektronikoen bidez, ez paper bidez, ez sarbide informatikoen bidez, ezta ikusteko ere.		2. Los datos personales objeto del tratamiento serán utilizados, única y exclusivamente, para la realización del objeto del contrato, no pudiendo ser destinados a finalidad diferente a la señalada. 3. Ninguno de los datos personales tratados como consecuencia de este contrato será facilitado a terceros. A tal efecto, la persona o empresa contratista se compromete a no revelar, transferir, ceder o comunicar dichos datos o los ficheros creados con los mismos, ya sea verbalmente o por escrito, por medios electrónicos, papel o mediante acceso informático, ni siquiera para su visualización, a ningún tercero.
4. Datuak isilpean edukitzeko betebeharra dute bai kontratistak bai kontratuaren xede den zerbitzuan esku hartzen duten langile guztiek, Datu Pertsonalen Lege Organikoan aipatzen den bezala. Kontratua bete edo suntsitu delako iraungi ondoren ere, betebehar horrek iraun egingo du.		4. La persona o empresa contratista y todo el personal que intervengan en la prestación objeto del contrato quedan obligados por el deber de secreto a que se refiere la Ley Orgánica de Protección de datos de carácter Personal. Este deber perdurará aún después de que el contrato se haya extinguido bien por su cumplimiento bien por su resolución.
5. Kontratistak hitz ematen du datuen babesaren arloko indarreko araudian eta Segurtasuneko Eskema Nazionalean eskatutako bitarteko tekniko, administratibo eta antolakuntzakoak hartuko dituela, hitzarmenaren xede den zerbitzua betetzeko behar diren datu pertsonalen segurtasuna bermatzeko: a) Horri dagokionez, lanean hasi aurretik, enpresak kontratazio-organoari zerrenda bat emango dio, datu pertsonalak eskuratzeko aukera izango duten langile guztien izenekin, abizenekin, funtzioekin eta lana garatuko duten lekuekin. Kontratua bete bitartean langile berriak sartu edo daudenei baja eman behar bazaie, enpresa adjudikaziodunak zerrenda berri bat entregatuko du, aldaketa gertatu denetik gehienez ere astebeteko epean. Bai enpresa adjudikaziodunak bai zerrenda horietan azaltzen diren langileek formalki hitz eman behar dute, idatziz, tratatutako datuei buruzko sekretu profesionala gordeko dutela. b) Adjudikaziodunak baldintza teknikoetan zehazten diren segurtasun-neurriak aplikatuko ditu tratamendu-zentroetan, lokaletan, ekipoetan, sistemetan eta programetan, baldin eta halakorik		5. La contratista se compromete a adoptar las medidas técnicas, administrativas y organizativas exigidas por la normativa vigente en materia de protección de datos, necesarias para garantizar la seguridad de los datos de carácter personal tratados para la realización de los trabajos objeto de este contrato: a) A este respecto, la empresa deberá entregar al órgano de contratación antes del inicio de los trabajos una relación con el nombre, apellidos, funciones y lugar donde van a desarrollar el trabajo de todo el personal que tenga acceso a los datos de carácter personal. Si durante el curso de la ejecución del contrato fuera necesario incorporar o dar de baja a personal, la empresa adjudicataria entregará una nueva relación en un plazo máximo de una semana desde que sucediera este hecho. Tanto la empresa adjudicataria como todo el personal que figure en estas relaciones deberán comprometerse formalmente por escrito a mantener el secreto profesional con respecto a los datos tratados. b) La adjudicataria se obliga a implementar las medidas de seguridad con respecto a los centros de tratamiento, locales, equipos, sistemas y programas que, en su caso, se especifiquen en los pliegos técnicos.

zehazten bada. c) Kontratuaren xede den zerbitzua bukatu ondoren, adjudikaziodunak itzuli edo suntsitu edo ezabatu egingo ditu datu pertsonalak dituzten fitxategi guztiak. Suntsiketa egin ondoren ezinezkoa izango da horiek berreskuratzeko edozein prozesu aplikatzea. Akta bidez egingo da fitxategiak itzultzearen edo suntsitzearen ziurtagiria, eta enpresa adjudikaziodunaren ordezkariak eta lanen zuzendaritza betetzen duen pertsonak sinatuko dute. Aktan zirkunstantzia horiek guztiak jasoko dira.		c) Una vez finalizada la prestación objeto del contrato deberán devolverse todos los soportes o destruir o borrar todos los ficheros que contengan datos de carácter personal por parte de la persona o empresa adjudicataria. La destrucción se realizará de tal manera que sea imposible aplicar cualquier proceso de recuperación. La certificación de la devolución o destrucción de los ficheros se realizará mediante un acta suscrita por la persona que represente a la empresa adjudicataria y por quien ejerza las funciones de dirección de los trabajos en la que consten tales circunstancias.
Kontratatutako erakundea datu pertsonalen lagapen-hartzaile bada (hirugarrenari aplikatu beharreko legezko betebehar edo gaikuntza baten edo datuak babesteko araudian aurreikusitako beste edozein babes juridikoren arabera), bai Udala bai erakunde kontratista tratamendu-jardueren erantzukidetzat hartuko dira.		En caso de que la entidad contratada resulte cesionaria de datos personales de acuerdo con una obligación o habilitación legal aplicable al tercero o cualquier otro amparo jurídico previsto en la normativa de protección de datos, tanto el Ayuntamiento como la entidad contratista serán consideradas corresponsable de actividades de tratamiento.
Horrela, entitate bakoitza arduratuko da DBEOren printzipioak betetzeaz eta interesdunei tratamenduaren berri emateaz, kontratuaren edo zerbitzuaren xedearen arabera beren datuak lagatzeko aukera adierazten duten klausulen bidez.		De este modo, cada entidad será responsable de cumplir los principios del RGPD e informar a las personas interesadas acerca del tratamiento mediante cláusulas en las cuales se indique la posibilidad de cesión de sus datos de acuerdo con el objeto del contrato o servicio.
Pertsona interesdunek eta legitimatuek eskubideak baliatzeko eskaerak egiten badituzte, eta eskaerak entitate lagapen-hartzailearen datuei eragiten badie (esaterako, lagapenerako baimena baliogabetzea), eskaera jasotzen duen erakundeak berehala jakinaraziko dio datuen erakunde lagapen-hartzaileari.		En caso de que se produzcan solicitudes de ejercicio de derechos por parte de personas interesadas y legitimadas y la misma afecte a datos de la entidad cesionaria, como la revocación del consentimiento para la cesión, o de cualquier otra índole, la entidad receptora de la solicitud informará sin dilación a la entidad cesionaria de los datos.
Aldeek segurtasun-neurriak aplikatu beharko dituzte adingabeen datu-transmisioetan, informazioaren konfidentzialtasuna bermatzeko, bai eta alderdien arteko harreman juridikotik kanpoko hirugarrenei sarbidea eragozteko ere.		Las partes deberán aplicar medidas de seguridad a las transmisiones de datos de menores que garanticen la confidencialidad de la información, así como impedir su acceso a terceros ajenos a la relación jurídica entre las partes.
.		
III.- <u>IZAERA, ARAUBIDE JURIDIKOA ETA JURISDIKZIO ESKUDUNA</u>		**III.- <u>NATURALEZA, RÉGIMEN JURÍDICO Y JURISDICCIÓN COMPETENTE</u>**
26. IZAERA ETA ARAUBIDE JURIDIKOA		**26. NATURALEZA Y RÉGIMEN JURÍDICO**
Klausulen agiri honen arabera egin behar den kontratua administrazio mailakoa izango da, eta kontratuan bertan zehazten ez den guztiari dagokionez, honako hauek bete beharko dira: a) Sektore Publikoko Kontratuen Legea; b) Herri		El contrato que en base a este pliego se realice, tendrá carácter administrativo y en todo lo no previsto en él se estará a lo dispuesto en la LCSP, así como en el Reglamento General de la Ley de Contratos de las Administraciones Públicas, y

Administrazioetako Kontratuen Legearen Erregelamendu Orokorra; c) Eta kasuan kasu, Administrazio Publikoen kontratazioan aplika daitezkeen arauak.

demás normas que, en su caso, sean de aplicación a la contratación de las Administraciones Públicas.

Administrazio-klausulen Agiri honen eta espedientearekin batera doan dokumentazio teknikoaren artean kontraesanik izanez gero, agiri honetan zehaztutakoa nagusituko da.

En caso de contradicción entre el presente Pliego de Cláusulas Administrativas Particulares y el resto de la documentación técnica unida al expediente, prevalecerá lo dispuesto en este Pliego.

27. JURISDIKZIO ESKUDUNA

27. JURISDICCIÓN COMPETENTE

Era berean, kontratutik sortzen diren auziak administrazioarekiko auzien jurisdikzioaren menpe egongo dira. Nolanahi ere, bi alderdiek nahi izanez gero, auziak arbitrajearen bitartez konpon daitezke, indarrean dagoen legedian zehaztutakorekin bat etorriz.

Las cuestiones litigiosas que se deriven del contrato se entenderán sometidas a la jurisdicción contencioso-administrativa, no obstante lo cual, las partes pueden acordar el sometimiento de sus litigios a arbitraje, conforme a lo establecido en la legislación vigente.

Kontratua interpretatzetik, aldatzetik, bukatzetik eta horren ondorioetatik sortzen diren auziak kontratazio-organoak ebatziko ditu. Horretarako hartutako akordioek administrazio-bidea agortuko dute. Akordio horien aurka administrazioarekiko auzi-errekurtsoa jarri ahal izango da, jurisdikzio hori arautzen duen Legean xedatutakoarekin bat etorriz; dena den, 39/2015 Legeak, urriaren 1ekoak, Administrazio Publikoen Administrazio Prozedura Erkidearenak, 123 eta 124. artikuluetan aurreikusitakoaren arabera, interesdunek aukeran izango dute berraztertze errekurtsoa jartzea.

Las cuestiones litigiosas surgidas sobre la interpretación, modificación, resolución y efectos del contrato serán resueltas por el órgano de contratación, cuyos acuerdos pondrán fin a la vía administrativa y contra los mismos habrá lugar a recurso contencioso-administrativo, conforme a lo prevista por la Ley reguladora de dicha jurisdicción, sin perjuicio de que los interesados puedan interponer recurso potestativo de reposición, previsto en los artículos 123 y 124 de la Ley 39/2015 de 5 de octubre del Procedimiento Administrativo Común de las Administraciones Públicas.

Bestalde, SPKLaren 44 artikuluan eta hurrengoetan xedatutakoaren arabera, kontratu honi kontratazio-arloko errekurtso berezia jarri ahal zaio.

Asimismo, de acuerdo con lo dispuesto en los artículos 44 y siguientes de la LCSP, el presente contrato será susceptible de recurso especial en materia de contratación.

Zarautz, 2021eko abendua

Zarautz, diciembre de 2021

I. ERANSKINA. DEUC

ANEXO I. DEUC

II. ERANSKINA. ESKAINTZA

ANEXO II. PROPUESTA

Izen-abizenak .....
Helbidea .....
Posta Kodea ..... Nortasun-agiria ..... Telefonoa .....

Ordezkariaren datuak (ordezkaririk egonez gero)
Izen-abizenak .....
Helbidea ..... Posta Kodea .....
Nortasun-agiria edo IFK (pertsona juridikoa bada): ..... Telefonoa .....

D ....., con domicilio en ..... CP....., DNI nº ....., teléfono ..... .en plena posesión de su capacidad jurídica y de obrar, en nombre propio (o en representación de ....., con domicilio en ....., teléfono ....., y DNI nº .....), enterado/a del procedimiento convocado por el Ayuntamiento de Zarautz para el

DIBERTSITATE FUNTZIONALA DUTEN ZARAUZKO UDALERRIKO PERTSONENTZAKO AISIALDI PROGRAMA

SERVICIO DE OCIO Y TIEMPO LIBRE PARA PERSONAS CON DIVERSIDAD FUNCIONAL DEL MUNICIPIO DE ZARAUTZ

ADIERAZPENA: 1.-Konpromisoa hartzen dudala onetsitako pleguen arabera zerbitzu hau baldintza honetan gauzatzeko: -Prezioa orduko : …… euro BEZ barne/orduko (…… euro + ……. euro BE -Emakume eta gizonen ordezkaritza orekatua izatea: -Kontziliazio neurriak: 2.-Administrazio-klausula zehatzen eta teknikoen agiria, eta kontratu hau arautu behar duten gainontzeko agiriak ezagutzen ditut. Horiek horrela, nire gain hartu eta ontzat ematen ditut oso-osorik. 3.-Kontratuak burutzeko indarrean dagoen araudiak eskatutako baldintza eta betebehar guztiak betetzen ditut. 4.- Era berean, lanaren zein zergen arloan legeak dioena edo araututa dagoena beteko dut. .....-(e)n, 20….ko ..... –ren .....-(e)an Sinadura		DECLARO 1º.- Que me comprometo a su ejecución con arreglo a los pliegos aprobados, en las siguientes condiciones: Precio: …….. euros/ hora IVA incluido (……. euros + ……. euros de IVA) -Representación equilibrada de mujeres y hombres: -Medidas de conciliación 2º Que conozco los Pliegos de Cláusulas Administrativas Particulares y Pliegos de Prescripciones Técnicas y demás documentación que ha de regir el contrato, que expresamente asumo y acato en su totalidad. 3º.- Que cumplo con todos los requisitos y obligaciones exigidos por la normativa vigente para la ejecución del contrato. 4º.- Que asimismo me obligo al cumplimiento de lo legislado o reglamentado en materia laboral y tributaria. En ..... a ..... de ..... de 20 Fdo: